

## Hezkuntza eta enpresa munduko 1.000 lagun bilduko ditu Adegik New Culturers Gunean

*Fabrikak, 24 enpresatako ia 100 ordezkari praktikatzan duten enpresa- eta lan-kultura berria partekatuko dute, Lanbide Heziketako edo Unibertsitateko azken ikasturteak ikasten ari diren 800 ikasle baino gehiagorekin eta berrogeita hamar irakasle baino gehiagorekin.*

*Donostia, 2024ko urriaren 15a.*

Fabrikak New Culturers Gunearen seigarren edizioa hartuko du bihar. Adegik bultzatutako ekimena da, eta enpresa- eta lan-kultura berria lantzen duten enpresen arteko topalekua da, Lanbide Heziketako edo Unibertsitateko azken ikasturteak ikasten ari diren neska-mutilekin. Adegiren eginkizuna enpresa sustatzea da, gizartearen eragile eraldatzaile gisa, jasangarritasun ekonomikoan eta trantsizio kultural eta ekologikoan lagunduz, enpresa hobea eta gizarte hobea lortzeko.

Eginkizun hori gauzatzeko estrategiak lau oinarri ditu: enpresak gizartean duen rola sustatzea, lehiakortasuna eta trantsizio ekologikoa, talentua eta kultura berria. New Culturers Gunea talentuaren eta kultura berriaren topalekua da.

Adegiren koiunturari buruzko azken inkestaren arabera, langile kualifikatuak kontratatzeko zailtasuna zegoen enpresen kezka nagusien artean. Kultura berriak konfiantzan oinarritutako proiektu partekatu gisa begiratzen dio enpresari, hau da, denek norabide berean arraun egiten duten traineru gisa.

Beren taldeetako pertsonen arteko harremanak eta konpainien lan-kultura hobetzen dituen kultura-trantsizioa egiten duten enpresak dira. Horrela, enpresa parte-hartzaileagoak dira; hobeto komunikatzen dute, informazio gardena eskaintzen dute; pertsona guztiak inspiratzen dituen helburu bat dute; balio partekatuak dituzten enpresak; azken batean, pertsonak ahotsa duten enpresak dira, eta jendea gustura joaten da lan egitera eta bere onena ematera.

Topaketan ikasleek kultura berria praktikatzan duten enpresak ezagutuko dituzte bertatik bertara eta, horregatik, haientzat erakargarriak izan daitezkeenak etorkizunean lan egiteko.

**Enpresak.** *Ameztoi Anaiak, Artadi Alimentación, ABB Niessen, Cadinox, C. Hostelera del Norte, Egile, Eibar Precision Casting Epic, Construcciones Sukia, Hispavita, Hospital San Juan de Dios, HRE Automation, Ieteam, Frigolan, Irisbond, Irundin, Marie Birzard, Plastigaur, Salto Systems, Spanset, Uvesco, VPNI Global Investments & Services, Vivebiotech, Zerbimek, Zucchetti.*

**Zentroak.** *AEG, Armeria Eskola, CIFP Bidasoa LHII, Cebanc, Don Bosco, Eagi, Goierri Eskola, IMH, La Salle (Andoain), Meka Lanbide Eskola, Miguel Altuna Lanbide Heziketa, Nazaret Zentroa, Oteiza Lizeoa, Plaiaundi, Salesianos, Seim, Tolosaldea Lanbide Heziketa, UGLE, Usurbigo Lanbide Eskola, Zubiri Manteo, Mondragon Unibertsitatea, UPV/EHU eta Tecnum.*